



Opencor dendaren irekiera, merkataritza handia jaiegunetan zabaltzeko lehenengo pausua

Herritarrak horrelako dendetan ez kontsumitzera deitzen ditugu, dakarten merkataritza-, hiri- eta garapen sozial eta ekonomia- ereduaren zigortzeko

Ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiok egunean 18 orduz eta urtean 365 egunez irekita egongo den Opencor El Corte Ingleseko dendaren atzoko irekiera salatzen dugu. Jaiegunetan langileen **deskantsurako eskubidearen kontrako erasotzat** jotzen dugu aipatutakoa.

Denda berri honen irekierak helburu argia du: merkataritza handiak jaiegunetan zabaltzeko aukera “normaltasun” osoz izatea. Honek ondorio larriak izango ditu: merkataritzako langileen lan baldintzen prekarizazioa, **merkataritza txikiaren kontrako kalte larria** bat eta **gutxi batzuen negozioa eta etekinak soilik lehenesten dituen eredu ekonomiko arrotz** baten inposaketa.

Enpresaburu handiek mozorroa kendu eta **helburu argia dute: jasotzen dituzten etekin handiak biderkatzea** eta horretarako ezinbestekoa da **lan-eskubideekin amaitzea eta lan baldintzen prekarizazioa**.

Testuinguru horretan biderkatu dituzte jai egunetan lan ez-egitearen kontrako erasoak eta **borroka horretan bidelagun fidelak topatu dituzte Bilbon**: Opencor zabaltzeko baimena eman duten **EAJ eta IU alderdiak**. **Hauek, berriro ere, merkataritza-interes handien alde egiten dute eta langile eta sindikatuen kontra**.

Larritzat jotzen dugu Azkunak, **herritarrentzako adibide gisa agertu nahian**, atzo egindako **presazko bisita patetikoaren** bidez hiri eredu arrotz honi emandako babesa. Honekin, babesa eman die, argi eta garbi, lan baldintzen prekarizazioari (lanaldi amaiezinak eta atsedeen eskubiderik gabekoak), egun ezagutzen ditugun harreman sozial zein familiarren desagertzearen, auzoen desertizazioari eta onuradun bakarrak izango den eliteari.

Ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiok langileen aldarrikapenak babesten ditugu eta protesta-ekintzekin bat egiten dugu (urtarrilaren 21erako ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek Bilboko Udaletxean deitutako kontzentrazioa), herritarrak horiekin bat egitera animatuz. Horrez gain, herritarrak horrelako dendetan ez kontsumitzera deitzen ditugu, dakarten merkataritza-, hiri- eta garapen sozial eta ekonomia- ereduaren zigortzeko.

La apertura de Opencor, primer paso para la apertura del comercio grande en festivos

Animamos a la ciudadanía a castigar mediante el no consumo en estas tiendas este modelo comercial y, en definitiva, de ciudad y de desarrollo económico y social.

Los grupos municipales de la Izquierda Abertzale, EA y Alternatiba de Bilbo consideramos la apertura ayer de Opencor, tienda de El Corte Inglés que abrirá 18 horas al día los 365 días del año, como un ataque al derecho al descanso de trabajadores y trabajadoras en festivos. Lo que vimos ayer no es más que **el inicio de una nueva agresión empresarial** que busca la apertura del comercio grande en festivos con “normalidad” y que conllevará una mayor precarización de las condiciones de trabajo en el comercio, ya de por sí bastante precarias, **un grave nuevo perjuicio al pequeño comercio**, además de un **obstáculo añadido a la conciliación entre la vida laboral, personal y familiar** y la imposición de **un modelo económico ajeno y basado en la “cultura” del negocio y del beneficio empresarial a cualquier precio.**

Los grandes empresarios han perdido todo tipo de complejos y se han lanzado a una carrera sin límite cuyo **objetivo final es la pérdida de derechos sociales y laborales** y la precarización de las condiciones de trabajo como fórmula para multiplicar sus ya elevados beneficios.

Es en ese contexto en el que se multiplican los ataques al derecho al descanso, a no tener que trabajar en los días festivos. Y a ello no solo contribuye la clase empresarial, sino que tiene **un gran aliado entre la clase política, en concreto, en este caso, entre PNV e IU**, que han sido quienes han otorgado la licencia de apertura. **De nuevo se colocan a favor de los grandes intereses comerciales y en contra de trabajadores y trabajadoras y sindicatos.**

Especialmente grave nos parece la implicación de Azkuna, quien ayer mismo, **con su patética y apresurada visita a la tienda como queriendo dar ejemplo**, quiso dejar claro su inequívoco apoyo a este tipo de modelo económico **extraño y ajeno** que generará una gran fractura en las relaciones sociales y familiares, el incremento de la precariedad laboral con jornadas eternas y sin derecho al descanso, la desertización de los barrios y **que sólo beneficia a una pequeña élite.**

Izquierda Abertzale, EA y Alternatiba apoyamos la reivindicación laboral de trabajadores y trabajadoras, llamamos a secundar los actos de protesta que se convoquen (la concentración convocada por los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT para el 21 de enero a las 12 del mediodía frente al Ayuntamiento) y animamos a la ciudadanía a castigar mediante el no consumo en estas tiendas este modelo comercial y, en definitiva, de ciudad y de desarrollo económico y social.